



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica



## KONTRASTE-MAHAI POLITIKOA

2021eko irailaren 13a

### AZTERGAIEN ZERRENDIA:

1. Ongietorria, ordezkarien aurkezpena eta bileraren helburua.
2. Enpresen Aholku Foroak lehenetsitako proposamenak azaltzea.
3. Talde politikoek aurkeztutako proposamenei buruz egindako gogoeta.
4. Kontraste-taldearen eztabaida, proposamenak aztertzeko. Galderak eta iradokizunak.
5. Hurrengo urratsak.

### BERTARATUTAKOAK (% 86)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	AUSENTZIAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Taxien ordezkaria	José Ignacio López	X		
Kirol-aisialdiko ordezkaria	Héctor García	X		
Interpretazio-zentroen, gidarien eta bidaia-agentzien ordezkaria	Ainhoa Sarriegi	X		
Merkatarien ordezkariak				
Getxo Enpresa	Amaia Lauzirika	X		
Romo Bizirik	Maite Sesumaga			
Algortako Dendak	Amaia Sertutxa	X		
Ostalaritzako ordezkariak				
Romo Bizirik	Jon Morán		X	
Asohge	Jorge Alonso	X		



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

Getxo Enpresa	Desiree Yeste	X		
Bizkaiako Ostalaritza Elkarte	Héctor Sánchez		X	
Alderdi Politikoak				
Elkarrekin Podemos	Carolina Uriba	X		
EH Bildu	Ibon Rodríguez	X		
PSEE	Gonzalo Ayo	X		
PP	Fco. Javier Elorza	X		
EAJ /PNV	Irantzu Uriarte	X		
Getxoko Udala – Ekonomia Sust. Arloa				
Sustapen Ekonomikoko Zinegotzia	Iñigo Urkitza	X		
	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Sara de la Fuente	X		

## EDUKIA

### **1. Ongietorria, ordezkarien aurkezpena eta bileraren helburua.**

Bertaratutakoei ongiatorria egin eta arloetako eta alderdi politiko guztietako ordezkariak aurkeztu ondoren, Iñigo Urkitza Ekonomia Sustatzeko zinegotziak hasiera eman dio Kontraste Mahai Politikoaren bilkurari. Horretarako, zinegotziak gogorarazi du honako bilera honen helburua arloetako mahaiek proposatutako eta Enpresen Aholku Foroak talde politiko guztiekin batera lehenetsitako proiektuak ezagutzea eta horien inguruan eztabaidatzea dela.

Era berean, aztertu beharreko gai garrantzitsuenak zenbateko denboraz aurkeztuko diren azaldu die bertaratuei. Hauexek dira:



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

<i>Enpresen Aholku Foroak lehenetsitako proposamenak azaltzea</i>	<b>60 min. (gehienez)</b> <i>(5' proposamen bakoitzeko)</i>
<i>Talde politikoen gogoetak aurkeztutako proposamenen inguruan</i>	<b>30 min. (gehienez)</b> <i>(5' talde politiko bakoitzeko)</i>
<i>Taldeko iritzi-eztabaida, proposamenak aztertu, galderak eta iradokizunak egiteko.</i>	<b>30min. (gehienez)</b>

Hori guztia, batez ere, Enpresen Aholku Foroko ordezkarietara hitza eman eta, horrela, eskaera horiek garrantzizkotzat zergatik jotzen duten azaltzeko.

## **2. Enpresen Aholku Foroak lehenetsitako proposamenak azaltzea.**

Proposamenak irakurri dira, eta lantalde teknikoak zein Enpresen Aholku Foroko ordezkarietara proposamenak azaldu dituzte banan-banan, puntuaziorik handienetik txikienera.

*2.1 2021eko ekitaldiko aparteko laguntzak; ostatu, gidari eta bidaiagentzien arloentzako laguntzak handitzea –harik eta estatu osoan eta nazioartean, hurrenez hurren, erabateko mugikortasuna dagoen unera–; egun gertatzen ari diren egoera berriak kontuan hartzea – Ostalaritzako establezimenduen barruko kontsumo-murrizketak. (1,0 puntu)*

Enpresen Aholku Foroak apirilean azken bilera egin zuenetik gaurdaino, aipaturiko laguntza horien deialdia egin da, laguntzok ebatzi dira eta eskatzaileek kobratu ere egin dituzte; beraz, ezin da askorik esan gai horri buruz.

Ildo horretan, EH Bilduko ordezkari Ibon Rodríguezek adierazi du ez duela ulertzen eskaera hori kontraste-mahaian aurkeztu izana, dagoeneko amaituta eta ebatzita baldin badago. Horren haritik, azaldu da *Getxo Ekinez* planaren esparruan deitutako eta 2021eko laguntzen indargarri izan diren ezohiko laguntza horiek onartzeko bidean zeudela arloetako mahaietan eskaera azken unean egin zenean eta, geroago, Enpresen Aholku Foroak lehenetsi zuenean. Administrazio-prozeduraren nondik norakoak zelakoak diren aintzat hartuta, erabaki behar izan zen egungo laguntza-ereduarekin aurrera egin eta hura ahalik eta enpresa-bolumen handienari emateko lehentasuna ematea ala, bestela, prozedura gerarazi eta berriz hastea, eskatutako aldaketak egin ahal izateko. Egungo osasun-egoera premiazkoa denez, prozedurari eustea erabaki zen.



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

## 2.2 Batuz sistema betetzeko beharrezko ekipamendu teknologikoa eskuratzeko laguntza-lerro berria. (1,3 puntu)

Hasiera batean, Batuz Sistema 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean jartzekoa zelako sortu zen ideia hori. Arloek kezka agertu zuten sistema berrira egokitzeko inbertsio handia egiteko beharraz den bezainbatean. Gaur egun, Foru Ogasunak luzatu egin du indarrean jartzeko epea, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango da nahitaezkoa; hala ere, alde aurretik sistema erabiltzen hasi eta borondatezko aldi atxikitzea erabakitzen duten enpresa guztiek zenbait kenkari fiskal izan ahal izango dituzte (foru-arauaren aurreproiektua hemen: [/2021 FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA, AREN \(E\)KOA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA EKONOMIA SUSPERTZEKO NEURRIAK, BATUZ SISTEMA BORONDATEZ APLIKATZEA SUSTATZEKO NEURRIAK ETA BESTE ZERGA-ALDAKETA BATZUK \(bizkaia.eus\)](#)

Ildo horretan, Jose Ignacio Lopez taxi-gidarien ordezkariak azaldu duenez, une honetan ibilgailua aldatzeko asmoa duten guztiek programatu egin behar dutela, ibilgailuak "nahieran" egiten direlako eta, hortaz, fabrikatu egin behar direlako. Horrek esan nahi du 8 hilabete inguru behar direla berria eskuratzeko, batez ere, iraunkortasunerantz jo nahi bada. Gainera, Batuz sistemaren ezarpenaren ondorioz, taximetroek eredu berri jakin batekoak izan behar dute, eta horrek 1.200 euro inguruko inbertsioa dakarkiola taxilari bakoitzari.

Beste alde batetik, Amaia Lauzirika Getxo Enpresak erakundearen merkataritza-sektoreko ordezkaria ere kezkatuta dago, oro har, digitalizatzeko prozesua oso eskasa delako merkataritzan. Establezimendu askok (batez ere, denda txikiek) oraindik ere ez dute ordenagailurik edo Interneterako modurik, eta, beraz, uneko arazoa ez da soilik softwarea sistemara egokitzea, ezpada, askok saltokiko terminalik edo kudeaketa digitaleko sistemarik ez dutela. Hortaz, inbertsio oso-oso egin behar dute. Zehatzago esanda, banku-erakunde batzuk oinarrizko ekipo osoa eskaintzen ari zaizkie 1.600 euroren truke (Tableta + Batuz sistemara egokitutako softwarea).

Ostalaritzari gagozkiola, Jorge Alonso ASHOGeko ordezkariak esan du establezimendu tradizional eta digitalizatuak egon daudela, baina ezinbestekoa izango dela guzti-guztiok negozioen digitalizaziora ohitzea. Ostalaritza-arloan, egokitu beharrak 1.000 eurotik gorako inbertsioa ekarriko du establezimendu bakoitzeko.

Amaia Sertutxak, Algortako Dendak elkarteko ordezkariak, elkarteak baliatuko duen Getxoko hornitzaile baten berri eman du, Sarintel izenekoa.



**Getxo**  
*bizi ezaza*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

Bestalde, Héctor García, Kirol-aisialdiko ordezkariak, azaldu du, bere kasuan, Foru Ogasunak urteko fakturen muga handitu diola, erakundearen doako sistema baliatu ahal izateko, eta aukera hori ondo egokitzen dela bere beharretara.

Lantalde Teknikoak aukera aprobetxatu du adierazteko parte-hartzaile askok eman dutela izena udalak eskainitako informazio-jardunaldietan, eta horietan nolabaiteko kezka-giroa antzeman dela. Hala eta guztiz ere, oro har, azken unerako uzten ari direla ikusi dute. Hurrengo informazio-jardunaldiak, linean, ondoko egun-ordutebietan egingo dira:

- 09/29, 13:30-14:30
- 11/09, 13:30-14:30

Eta izen-emateak Udalaren webgunean egin daitezke: **[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)**.

Horrez gain, Ekonomia Sustatzeko Arloak lehen aipatutako zerga-kenkariet buruzko informazioa emango du, kenkariak zehaztu ostean, eta negozioei laguntza emango die egoera berrira igarotzeko bide horretan.

Ikusi homologatutako softwareen zerrendaren xehetasuna eta sistema borondatez ezartzeagatiko zerga-pizgarrien iragarkia 5. diapositiban.

*2.3 terrazen ordenantza berrikusteko proposamena. (1,6 puntu)*

*2.4 Terrazak baimentzeko administrazio-prozedurak berrikustea (aldaketak egin diren arren, ostalaritzak ez du hobekuntza handirik antzeman prozeduran; prozedura bizkorragoa izatea eta izapideak sinplifikatzea eskatu da). (1,6 puntu)*

Terrazekin lotutako bi proposamen horiek ostalariet baimenak izapidetzeko dituzten zailtasunen ondorioz bideratu dira. Ildo horretan, Jorge Alonsok azaldu du ordenantza korapilatsua dela haren aplikazioari eta ulertzeko erraztasunari dagokienez, eta, gainera, kasu askotan, kontraesankorra dela. Horren erakusgarri, gaineratu du udalak horretarako sail tekniko bat duen arren, kanpoko enpresa bat kontratatu behar izan duela sail horrekin hitz egiteko eta ostalariet izapideak egiten laguntzeko. Alonsoren kasuan, esan beharra dago bost proiektu desberdin aurkeztu behar izan zituela terraza bakarrerako; izan ere, dirudienek, sail teknikoak eskaeran akatsen bat aurkitzen zuen bakoitzean, ezezkoa ematen zion proiektuari, proiektu osoan zeuden beste hutsegite batzuei erreparatu gabe, eta, horren ondorioz, nabarmen moteltzen zen prozedura. Era berean, aintzat hartu behar da, terraza-proiektua aurkezten den bakoitzean, ostalariak kostu



**Getxo**

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

ekonomiko bati aurre egin behar diola, luzamenduak eragiten dion akidura pertsonalaz gain. Horregatik, premiazkoztat jotzen du izapidetzea aldatzea, errazago ulertzeko eta aurkezteko.

Beste alde batetik, sektoreak nabarmendu du baimena emateko prozedura oso geldoa dela; izan ere, adibide gisa, Desiree Yestek, Getxo Enpresak elkarteak sektorean duen ordezkariak, azaldu du terraza handitzeko eskaera egin zuela, eta, baimena abuztua baino lehen jasotzeko aurreikuspena zegoen arren, oraindik ere ez duela jaso. Eta “COVID terrazen” erabilera abenduaren 31n amaituko da.

“COVID” terrazak erabiltzeko epemuga dela eta, sektoreari argitu zaio abenduaren 31 izango dela baimenaren azken eguna.

Nolanahi ere, lantalde teknikoak Desireek (Oku Lounge) jaso barik daukan jakinarazpena berrikusiko du, eta mahaiari azaldu dio Ekonomia Sustatzeko Arlotik “Ohiko galderak” deritzon gida zehatza prestatu dela, orain arte metatutako eskarmentutik abiatuta, eskaera egiteko prozedura argitu ahal izateko. Barne-araubidearen Arloa dokumentua berrikusten ari da eta laster jendaurrean jarriko da.

*2.5 TAOren ordainari hobaria emateko aukera erosketen zioz; kudeaketa-ereduaren azterketa eta proposamena. Aurrekontuak eta ondoko azterketa egiteke. (1,7 puntu)*

TAOren ordaina prezio publikoa dela argitu da, eta, beraz, ezin du hobaririk jaso, baina eskaera horren asmoa bazen kanpaina-motaren bat abiaraztea, bezeroek Getxon aparkatzeko eta tokiko merkataritzan nahiz ostalaritzan kontsumitzeko erraztasunetan oinarrituta, betiere, azken kasu horretan, jatetxeei lotutako kontsumoa egiten bada. Horretarako, irtenbide egokia aurkitzen saiatu behar da sektoreekin eta diruzaintza sailarekin batera.

Amaia Lauzirikak zehaztu du balizko kanpaina hori udalerriko aparkalekuetako plazak baliatuz egitea zela asmoa, ez TAORI lotutako aprkalekuak erabiliz. Gainera, TAORik ordaindu behar ez den ordutegietan oso zaila da aparkatzea, eta baliabide bakarra aparkalekua ordaintzea da; hori dela eta, bezeroek uko egiten diote udalerrira kontsumitzera hurbiltzeari.

Aukera horren harira, Gaintzako aparkalekuaren prezioa mahairatu da; hala, bertaratutakoen artean eztabaida laburra izan ondoren, egiaztatu da



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

lehenengo bi orduak TAOren prezioa baino tarifa garestiagoa dutela, nahiz eta gero berdindu egiten den.

Beste alde batetik, José Ignacio Lópezek zehaztu du Gaintzako aparkalekua herriarentzat mesedegarria izan daitekeen arren, taxiek kalte handia hartzen dutela eta inor ez dela taxiaren erabilera defendatzen ari. Gainera, gehitu du taxi-lizentziaren jabeek okupazio-tasa ordaintzen dutela ibilgailua aparkatzeko, eta Algortako taxi geltokian 5-6 leku kendu dizkietela tasa ordainduta ere, eta zerbitzua oso-osorik erabilgarri dagoen unean (une honetan, % 50eko erabilgarritasuna dauka) ezin izango da han aparkatu. Une honetan, aparkatzeko zailtasunak dituzte. Hori gutxi balitz, badirudi taxi-gidari bati zehapena jarri diotela taxien geltokian bertan, eta beste bati bigarren lerroan egoteagatik, aparkatzeko ezintasunak eraginda. Lehen gertaera hori errekurritu egin zen, baina ez zen onartu epez kanpo aurkeztu zelako, eta, ondorioz, interesdunak eragozpenak izan zituen eskatutako COVID laguntzak kobratzeko, udalarekiko betebeharrak egunean ez zituelako. Esandako guztia arlo eskudunekin egiaztatuko da.

Bestalde, Maite Sesumaga, Romo Bizirik elkartearen merkataritza-arloko ordezkaria, kexu agertu da udalerrian dagoen aparkaleku-sareak ez dielako erantzuten Romo auzoaren beharrei, eta, gainera, TAO ezartzea aurreikusita dagoela. Horregatik guztiagatik, bidegabekeria konparatiboa pairatzen ari direla uste du.

### *2.6 Establezimenduen bilatzailea hobetzea (diseinua, erabilgarritasuna, iragazkiak). (1,8 puntu)*

Arloetako mahaietan Enpresen Aholku Foroan iradoki zen oso egokia izango zela udalerrian establezimendu-bilatzaile bat izatea, bizkorra, dinamikoa, produktu, zerbitzu edo markaren araberako bilaketa xehatua eta diseinu moldagarria dituen, besteak beste. Helburu hori betetzeko, lehen urratsak egin dira Informatika Sailarekin batera.

### *2.7 Udalerriko beste leku batzuetan (San Nikolas, Santa Eugenia...) dauden aparkalekuen kudeaketa eraginkorragoa. (1,9 puntu)*

Arloko teknikariek jakinarazi dutenez, Santa Eugeniaren kasuan, aparkalekuak plazen % 100 esleituta ditu eta ez dago plazarik txandaka ateratzeko aukerarik; Biotz Alai eta Mesedeetako aparkalekuak pribatuak dira, eta, beraz, Getxoko Udalak ez dauka horiek kudeatzeko eskumenik; San Nikolaseko aparkalekuan plaza batzuk badaude erabilgarri, baina sarrera bakarra du; beraz, ez du txandakako aparkalekua izateko araudia



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

betetzen. Hala ere, azken aparkaleku horretan, beste aukera edo irtenbide batzuk aztertzen ari dira, bertako egoiliarren mesederako (eta, horrela, aparkalekuak libratuko lirateke udalerrian), edo udalerriko enpresei aparkatzen laguntzeko. Gainera, sektoreetako ordezkariak funtsezko iritzi diote alokairu/emakida horiek merkatuaren arabera prezioa izateari.

### *2.8 Sektoreen arteko salmenta gurutzatua (cross-selling) sustatzeko proposamena, sektore batzuk beste batzuen erabilera-preskriptore bilakaturik. (1,9 puntu)*

Foro edo topagune mota horretako ordezkari sektorialeak nabarmendu ohi duten gauza onetako bat da udal-enpresak eta -jarduerak ezagutzeko aukera izan dutela, eta sinergiak eta loturak sortzen lagundu diela. Ildo horretan, Ekonomia Sustatzeko Arloak erakusleihatuan jartzeko bereizgarria bidali zien merkataritza- eta ostalaritza-establezimendu guztiei, udalerriko turismo- eta aisialdi-zerbitzuen eskaintza osoa ikusarazteko, display txiki batekin batera. Ostalaritzak, hain zuzen ere, establezimenduetako telebistak eskaini zituen, udalerriri buruzko kanpainei edo, oro har, edukiei buruzko bideoak emateko. Horretarako, erreproduktio-zerrenda bat sortu zen Youtuben, lehendik argitaratutako bideoek osatutakoa, eta interesa zuten enpresei esteka bidali zitzaion.

Bestalde, “Getxo bihotzez” programaren barruan (Getxo Ekinez ekimenaren barruan dagoen ezohiko ekintza), “Ohitzeko bidaiak” antolatzen hasi dira. Bidaia horietan, kanpoko agente interesgarriak (gehienak merkaturatzaileak) aukera ematen zaie egon dauden esperientziak eta jarduerak bertatik bertara ezagutzeko eta probatzeko, eta geroago bezeroei kontatzeko eta/edo saltzeko bere zerbitzuak programatzerakoan.

Adibide gisa, Héctor García Polaris Nautika Eskolako gerenteak, bidaia horietan parte hartu zuenez, bere esperientzia oso positiboa izan dela dio; bertan, uztailan irteera bat egin zuen Bilbo Handiko bidaia-agentzietako zuzendariekin batera –enpresentzako programak antolatzen espezializatutako bidaia-agentzietako zuzendariekin batera–, itsas sektorea eta bertan egiten diren jarduerak ezagutarazteko.

Xehetasun gehiago ematearren, udal teknikariek azaldu dute uztailan bi ohitze-bidaia antolatu zirela, eta irailtik abendura beste 15 antolatuko direla; horietako batzuk lineakoak (ordubeteko iraupena) eta beste batzuk aurrez aurrekoak (egun erdia) izango dira. Aukera aprobetxatu da sektoreak haietan parte hartzera gonbidatzeko eta/edo proiektuaren talde





**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

eragilearekiko harremanak lantzeko ([visitgetxo@getxo.eus](mailto:visitgetxo@getxo.eus)), ondoko jarduerak sustatzeko xedez:

- Proiektuarekin bat egitea eta eskaintza ohitze-bisitaren batean txertatzea (erakusleihoa).
- Ohitze-bisitaren batean parte hartzea, esperientziaren berri bertatik bertara izateko, beste enpresa batzuekin harremanetan egoteko eta eskaintza nola txerta daitekeen ikusteko (ezagutza + sinergiak).

### *2.9 Mugikortasun iraunkorra (Getxobizi otzarekin + GetxoBus + Garraio publikoaren erabilerari hobariak ematea) (2,0 puntu)*

Mahaiari jakinarazi zaio garraio publikoaren erabilerari hobaria emateko ekintza ez dela bideragarria.

Getxobiziren kasuan, adierazi da agiriak idazten ari direla, Uribe Kostako, Leioako eta Erandioko udalekin lankidetzan. Asmoa bizikletak mailegatzeko zerbitzua berritzea eta eskualde osorako eredu bakarraren eta hobearen aldeko apustua egitea da; bizikletetan, hasiera batean, bizikleta elektrikoak egongo lirake, erosketak erraztuko lituzkeen otxara edo saskiez hornitutakoak. Sistema berriak Barik txartela erabiliz jardungo luke. Ainhoa Sarriegui interpretazio zentroen, giden eta bidaia-agentzien ordezkariak ere proiektu horren garrantzia azpimarratu du, udalerriko interesguneak bisitatzeko bizikleta erabiltzen duten turisten gorakada nabarmenagatik.

Getxobusi dagokionez, Iñigo Urkitzak Kontsulta Foroko ordezkariari galdetu die ea zein auzo/gunek uste duten ez dutela zerbitzu publikorik. Hauek hirigunea lotzeko beharra adierazten dute, hau da, ostalaritza eta tokiko merkataritza baliabide turistiko nagusiekin (flysch-a, Galea lurmuturra, Kirol Portua/Portu Zaharra edo hondartzekin, kasurako, Azkorriekin) lotzea, bai eta udalerrian egunero-egunero erabiltzeko beste eremu batzuekin ere, hala nola Aldapa, Poligono gorria, Neguri edo Andra Marirekin.

Beste alde batetik, Héctor García nabarmendu du kirol-portua oso gaizki komunikatuta dagoela garraio publikoaren bidez; izan ere, Neguriko metroa hurbil egon arren, esan du ez dela oso erabilgarria materialak zamatzea dakarten jarduerak egiten direnean. Hori dela eta, Kirol-aisialdiko sektoreak egin duen eskaeretako bat izan da kirol-porturaino iristen den autobus-linearen bat egokitzea. Gainera, 2022tik aurrera, Ereagan TAO ezartzeak eragiten dien kezka ere kontuan hartu behar da; izan ere, kirol-portuan aparkatzeko arazoak okerrera egingo duela uste dute.



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

José Ignacio Lópezek aukera aprobetxatu du esateko herritarrek, askotan, taxien prezioa zenbatekoa den ez dakitela; izan ere, Bizkaia zubitik kirol-porturaino joateko ibilbidea, 4 laguntzat (bela-material guztia ere garraiatuta) 10 eurotik beherakoa izan daiteke. Hala, uste du taxien bidezko joan-etorri horien tarifak ezagutzea baliagarria izan daitekeela Kirol-aisialdiko sektorearentzat.

Enpresen Aholku Foroko ordezkariak azkena eman diote gaiari eta ondorioztatu dute garraio-sare integrala, udalerriko auzo guztiak hobeto lotzeko aukera ematen duena, beharrezkoa dela, herritar bakoitzak aukera izan dezan bere beharretara ondoen egokitzen den garraiobidea aukeratzeko; bizikleta, autobusa edo taxia, garraiobide guztiak osagarritzat hartuta.

#### *2.10 GetxON marka eguneratzea eta berrabiaraztea. (2,2 puntu)*

Bertaratutakoei azaldu zaie, sasoiaren zenean, GetxON marka merkataritza-sarearen irudia izateko diseinatu zela, baina irudi hori zaharkituta geratu dela eta ez dagoela aktibo. Amaia Lauzirikak gaineratu du une honetan marka ez dela erabiltzen, eta dagoeneko inork ez duela identifikatzen. Beraz, arloetako mahaiekin egindako bileretan, marka suspertu eta berriro ere diseinatzeko eskaera egin zen, zentzu zabalagoa emateko, udalerriko enpresa-parke osoa (hau da, merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak eta abar) aintzat hartuta, sektoreen arteko lotura indartu eta jende gehiagorengana iristeko. Era berean, diseinu berria landutakoan, bilatzaile berria izango du eta kanpainetan zein ekintzetan erabiliko da merkataritza-parkearen irudi gisa.

#### *2.11 Balizko laguntzak balioestea (2022tik aurrera), honako hauek errazteko: taxien eta taxi egokituen flota berritzea, ibilgailu hibridoak (gaur egun 2 bakarrik) eta/edo ibilgailu elektrikoak (0) kopurua handitzea, eta geldialdietan kargatzeko puntuak instalatzea. (2,3 puntu)*

Taxien mahaiak laguntza-lerroa eskaini zion lantalde teknikoari, 5 bat urteko epean edo epe luzeagoan ibilgailu guztiak erabat berritu ahal izateko, eta adierazi zuten izan bazirela halako dirulaguntzak abian jarritako hiriak. José Ignacio Lópezek azaldu du, Bilbon bertan, nahitaezkoa dela edozein ibilgailu publikok modalitate horretakoa izan behar izatea, eta Bizkai-Taxi elkartearen trantsizio hori egitea pentsatzen ari da, baina, oraingoz, horrek dakarren kostua eragozpen handia da. Adibide legez, esan du lankideetako bati 40.000 euro ordaindu dituela ibilgailuz aldatzeko; hortaz,



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

10.000 euro inguruko aldea dago ibilgailu tradizional batekin erakatuta. Beraz, “2.2 Batuz sistema” deritzon atalean ibilgailu berria fabrikatzeko itxaronaldiei buruz esandakoa ere kontuan hartuta, autoa aldatzeak horren ordezkoa programatzea eta inbertsio ekonomiko handiagoa egitea badakar, 2022an egin ala ez erabakitzeko, udalean adosten denaren zain daude.

Udalerrian, 46 taxi daude guztira, horietatik 2 hibridoak dira eta 1 egokitua.

Iñigo Urkitzak, Ekonomia Sustatzeko Arloko zinegotziak, aldaketa hori egitea saihestezina dela adierazi du, eta hori aztertzeke eskaera jaso du Ingurumen Sailarekin eta tartean egon daitezkeen gainerako sailekin.

*2.12. Aisialdirako eremu natural bat eratzea, tokiz gaindikoa (Erandio-  
Leioa, Berango, Getxo). (2,5 puntu)*

Interpretazio Zentroen, Giden eta Bidaia-agentzien Mahaiak proposatutako jarduera da, baina ez dago behar bezala landuta. sektore horrekin egingo diren hurrengo bileretan, proposamena gehiago definitu nahi da.

Hala ere, mahaiari azaldu zaio naturaguneak sortzeari/balioan jartzeari dagokionez, Bizkaiko flysch-a nabarmentzeko lan egin dela, “Jata-ondo Landa Garapenerako Elkartearekin” lankidetzan, Galea lurmuturretik Bakiora bitarteko eremua barne hartzen duena. Eremu horretan, interes geologikokotzat jotako 16 lekuak sustatzeko web-orria eta sare sozialetako profilak sustatu dira eta mapa bat editatu da sektore guztietara helarazteko, bai eta flyscharen inguruko produktuak eta zerbitzuak garatzeko ere, kirol-aisialdiko sektorearekin elkarlanean. Datorren urtean proiektuari jarraipena ematea da asmoa.

### ***3. Talde politikoen gogoetak aurkeztutako proposamenen inguruan.***

*Ibon Rodríguez - EH BILDU*

Egungo Aholku Foroaren formatuari dagokionez, nahikoa eszeptikoa da eta parte-hartzaileek bilera zein hizkuntzatan (euskara/gaztelania) egin nahi duten aukeratzeko tresnak ezarri behar direla aipatu du.

Bestalde, egungo egoera ekonomikoari garrantzi handiagoa eman beharko litzaiokeela uste du, eta apirileko Aholku Foroan landu ziren gaiei buruzko mahai hau egiteko lau hilabete igarotzen ez uztea. Gainera, esan du hobe litzatekeela proposamen bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa



jasotzea, eta horietako bakoitzean gobernu-taldearen jarrera/konpromisoa epeetan eta aurrekontuan zein den gehitzea. Eztabaidak gehiago luzatu ahal izatea ere gustatuko litzaioke, eta bigarren bilera deitzea proposatu du, sektoreekin batera xehetasunak aztertzeko; era berean, adierazi die bilera honetan aztertutako gai asko dagoeneko udaletxean aztertu direla.

- *2.2 Batuz sistemari atxikitako laguntza-lerro berria:* dirulaguntza hutsetik harago, pentsatzen du beste ekintza erabilgarri batzuk ere proposa daitezkeela, hala nola erosketa zentralizatzeko prozesuak edo antzekoak, ekipamendu eta software berria erosteko prozesuak merkatu ahal izateko.
- *2.3 eta 2.4 Terrazak baimentzeko ordenantza eta prozedura:* bere taldeak zalantzak ditu eremu jakin batzuetan terrazak zabaltzearen eta herritarren espazio publikoa erabiltzeak batzuetan eragiten duen eskubide-talkaren artean. Hala ere, ostalaritzari entzun ondoren, iruditzen zaio, ordenantza bera baino gehiago, administrazioaren eraginkortasunik ezatik sortzen dela arazoa, eta norbanakoek ordaintzen dutela. Eta prozedura luza ez dadin, administrazio barruko mugak ezartzea proposatu du, egin beharreko berrikuspen kopurua mugatzeko. Gainera, oso adierazgarria iruditu zaio udalak enpresa bat kontratatu behar izatea ordenantza bera ulertzen laguntzeko.
- *2.5 eta 2.7 Erosketei lotutako TAO ordainari hobaria emateko aukera eta aparkalekuen kudeaketa eraginkorragoa:* ez dute proposamen hori babestuko; ba, ordea, aparkalekuen hobaria edo prezioa murriztea, aparkalekuetan zentralizatutako zerbitzuak edo horietan autobus-anezkek instalatzea, besteak beste. Izan ere, etorkizunerako apustua autoak kaletik ateratzea delako, herritarrei ikusarazita zerbitzuak konbinatuz gero autoaren beharra ahaztu dezaketela. Aparkalekuentzat TAOrentzat baino prezio merkeagoa ezartzean datza bere dema. Getxon 4 aparkaleku daude, eta horiei erabilera hobea eman dakieke. San Nikolaseko aparkalekuari dagokionez, gobernu taldeak ezetz esan dio merkatarien esku jartzeari, txandakatzeari eta, bi urtez, bestelako alokairuak aterako dituztela.
- *2.8 sektoreen arteko cross-selling (salmenta gurutzatua):* lehenengo eskaera izena aldatzea da, eta “salmenta gurutzatua/lotua” edo “salmenta gurutzatua” proposatu du. Bestalde, aipatu du “Prescriptor” izeneko enpresa bat dagoela Getxon, udalerrirako kontsumo-txartel berezi baten gainean egindako proposamen bat dagoela eta *Kirur* izeneko sistema berritzaile bat sortu dela, mugikorraren bidez ordaintzeko, deskontu eskusiboak eginda, eta Bilbon eta Hernanin proba pilotu bat egiten ari direla. Haren iritzi,



hori guztia eraginkorragoa da epe luzera mahaian proposatu den *cross-selling* hori baino.

- **2.9 Mugikortasun jasangarria:** Getxoko autobusaren proposamenari dagokionez, proposamenak zerikusi handiagoa dauka herritarren premiei begira, turismoari begira baino (hori ere bai). Bestalde, kirol-portuaren autobus linea beste hainbat forotan proposatu da eta gobernu taldeak ukatu ezezkoa eman dio.
- **2.10 GetxON marka eguneratzea:** ekimen ona iruditzen zaio, eta kontsumo-txartelaren eta *Kirur* sistemaren ekintzekin lotu daiteke.
- **2.11 Taxien flota berritzeko laguntzak:** beharrezkotzat jo du taxien arloaren funtzionamendua birplanteatzea, Uber bezalako enpresen etorreragatik. Ibilbide finkoak ezartzea eta ikuspen handiko eremuetan seinaleztatzea proposatu du, hala nola metro-geltokietan, horretarako administrazioaren, taxisten eta merkatarien arteko hitzarmena sortu behar bada ere. Halaber, bere taldeak aurkeztu zuen eta ezetza eman zioten ekimena aipatu du, Auzotaxi izenekoa. Horren arabera, taxiz egindako ibilbide zehatzak egitea proposatu zen, prezio merkeagoan, bereziki, adineko herritarren mugikortasuna errazteko pentsatuta.
- **2.12 Eremu natural bat sustatzea:** EH Bilduk Mimenaga parkea proposatu zuen ingurune natural gisa sustatzeko, Ibarbengoako metroaren parean dago eta, baina gehiago proposa daitezke. Hala ere, adierazi du Getxok ez duela ingurune berde gehiegirik kostaldeko eremutik landa, halako eremu bat sortzeko.

### Carolina Uribe- Elkarrekin Podemos

Hasteko eta bat, esan du, bere ustez, bilgunea hau erabilgarria dela, baina, Ibon Rodriguezek esan duen bezala, ordezkari politikoek denbora labur-laburra izan dutela mahaian aurkeztutako proposamenak aztertzeko, eta gustatuko litzaiokeela eztabaida horiek gehiago luzatu ahal izatea proposamen bakoitza sektoreetako ordezkariekin xehetasunez jorratzeko. Beraz, alde aurretik landu dituzten gaiei buruz hitz egingo duela dio, gainerakoak aztertzeko utzita.

- **2.2 Laguntzen lerro berria - Batuz sistema:** sektoreentzako lehentasuna ez izan arren, sektore batzuek doako softwareak dituzte, eta beste batzuek ez. Desberdintasun edo alde hori gainerako erakundeekin landu beharreko kontua da. Prestakuntzaz gain, beharrezkotzat jo du negozioak sistemaren ezarpena egiten garaiz iristea eta inbertsio handiegirik egin behar ez izatea.



- *2.3 eta 2.4 terrazak baimentzeko ordenantza eta prozedura:* beharrezkotzat jo du COVID birusak sortutako terraza berrien eta espazio publikoa erabiltzeko eskubidearen arteko oreka. Hala ere, garrantzitsua da abenduaren 31tik aurrera zer gertatuko den jakitea, baimen horiek amaituko diren edo luzatuko diren; izan ere, kasu askotan, ostalariek terraza izaten jarraitu nahi izango dute, eta une horretan jakin beharko da nola kudeatu okupazio publikoa, zarata, aparkalekuak eta abar. Bestalde, oso kezkatuta daude baimenen izapideei buruz jorratu den arazoarekin; izan ere, bere taldeak behin eta berriro eskatu du eta mozioak aurkeztu ditu izapide guztiak erraz daitezen, sinplifika daitezen eta irakurketa erraza bultza dadin. Era berean, interesgarri deritza terrazen ordenantza hori aldi honetan landu beharreko egutegian txertatzea.
- *2.5 eta 2.7 Erosketei lotutako TAO ordainari hobaria emateko aukera eta aparkalekuen kudeaketa eraginkorragoa:* horri buruzko bozketa egin zenean, bere taldekideek kontrako botoa eman zuten, hain zuzen ere, prezioa zela eta, aparkalekuaren eta TAOren prezioaren artean alde nabarmena zegoelako. Baina uste du irtenbide bat landu behar dela, eskaerak lorgarriak izan daitezen.
- *2.8 sektoreen arteko cross-selling edo salmenta gurutzatua:* bat egiten dute neurriarekin.
- *2.9 Mugikortasun jasangarria:* beharrezkotzat jo du auzoak hurbiltzea ahalbidetzen duen autobus hori egotea, eta bat dator Ibon Rodriguezen iritziarekin. Hori guztia taxiaren sektorea babesteari eta sustatzeari utzi gabe, ez baita ahaztu behar ondasun publikoa ere badela eta, beraz, sektoraren tarifak finkatuta daudela. Beste alde batetik, interesgarria iruditu zaio proposamen erraz baina eraginkorrak aurkeztea, hala nola udalerriko seinaleztapena hobetzea, oinezkoentzako seinaleak kasurako, interesgune jakin batzuetara iristeko dauden distantziak eta garraiobideak adierazita.
- *2.10 GetxON marka eguneratzea:* Carolinak interesgarritzat jo du ekintza hori, eta BFaren Eup! plataformarekin lotzea proposatu du.

### Fco. Javier Elorza – Alderdi Popularra

- *2.3 eta 2.4 terrazak baimentzeko ordenantza eta prozedura:* oposizioko aurreko bi alderdiak bezala, Fco. Javier Elorzak dio jakitun dela administrazioak ez duela eraginkortasunik gai honetan, eta badakiela zer kalte ekonomiko eta pertsonal eragin dizkion ostalaritzari. Bestalde, adierazi du bere alderdiak salatu duela udalean talde tekniko on bat izanik ere, kanpoko enpresa bat kontratatu behar izan dela izapide horiek argitzeko. Abenduaren



31tik aurrera, ez dakite zer neurrik jarrai dezaketen indarrean, baina etorkizunean gerta daitezkeen pandemiak direla eta, eremu ireki eta zabalen erabileraren alde egin du. Une honetatik aurrera, 2022 urterako plangintza sortzen hastea proposatu du, gerta daitezkeen aukera guztiak kontuan hartu eta aurten egindako akatsak zuzentzen dituen. Edonola ere, terrazak indarrean jarraitzearen alde egin du, eta terrazak zabalagoak edo txikiagoak izan daitezen establezimenduaren barruan baimendutako pertsona-kopuruaren arabera (edukiera); Jorge Alonsok ere neurri hori aipatu du mahaiaren azken eztabaidan.

- *2.5, 2.7, 2.9 eta 2.11:* mugikortasunari dagokionez, mahaiari aipatu diren garraiobide guztiek elkarren osagarri izan behar dutela uste du, udalerrian guztiei lekua eginda. Ildo horretan, ez du ulertzen autoa hiritik kendu nahi izatea alde aurretik beste aukera bat eman gabe. Hirigunera autoz sartzea zailduz gero eta beste aukerarik ez badago, baliteke herritarrek Artean kontsumitzen amaitzea, eta hori arazo handia izan daiteke merkataritzarentzat.
- *2.10 GetxON marka eguneratzea:* ekimenari babes osoa ematen dio, baina argitu du ekimenaren esanahia ulertzen ez zuten pertsona asko aurkitu dituela; beraz, haren iritziz, komenigarria litzateke herritar gehienengana iristen diren izenak bilatzea.

### Gonzalo Ayo – PSEE

COVIDetik eta GetxoBonotik eratorritako laguntzen inguruan teknikoki egindako lan sendoagatik eskerrak eman ditu. Aztertutako proposamenei dagokienez, guztiak ikuspuntu teknikitik eta zuzkidura ekonomikotik aztertu behar direla uste du. Hala ere, taxien flota berritzea, bizikleten paradigma aldatzea edo bidegorriak zabaltzea bezalako proposamenetan eragin beharra ikusten du, hori guztia jasangarritasunerantz bideratuta. San Nikolaseko aparkalekuen kudeaketa eraginkorragoari dagokionez, beharrezkotzat jo du hori berehala mugitzen hastea; eta terrazen kudeaketari eta ordenantzari dagokienez, bat dator gainerako alderdi politikoekin, eta gaineratu du “Ohiko Galderak” gidaliburua onuragarritzat jotzen duela.

### Irantzu Uriarte – EAJ/PNV eta gobernu-taldea

Eskerrak eman ditu kontraste-mahai hauek sektore guztiei bertatik bertara entzuteko, haien kezak eta norberak bizi duen egoera ezagutzeko eskaintzen duten aukeragatik, eta, bideragarriak badira, mahairatzen dituzten proposamenak lantzeko. Aztertutako proposamenei buruzko



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

zalantza asko uxatu ahal izan diren arren, terrazen ordenantzari buruzko kontu bat zehaztea nahi du, hau da, eskaera ordenantzaren edukia aldatzeari buruzkoa den ala ez.

Ildo horretan, Jorge Alonsok 2.3 eta 2.4 ataletan azaldutakoa adierazi du berriro, hots, ordenantza korapilatsua dela haren aplikazioari eta ulertzeko erraztasunari dagokienez, eta, gainera, kasu askotan, kontraesankorra dela. Horregatik, izapideetan sinplifikatzea eskatu dute, ulergarriagoa eta eraginkorragoa izan dadin. Gainera, udalerriko zenbait gunetan (Algortan, adibidez) kontrolik gabe zabaltzen ari diren terrazen oreka eta espalioen okupazioa hobetzeko, zentzugabea da ostalarientzat pandemiaren aurretik terraza bazuten TAO plazarik ezin okupatzea, baldin eta neurri horrek lekua eta saltokietarako sarbideak libratzen baditu herritarrentzat. Terrazetarako plaza horiek edukitzeko eskaera “2.5 proposamenarekin” kontraesankorra iruditu arren, Jorge Alonsok ondorioztatu du funtsezko gakoa dela hutsik dauden aparkalekuei erabilera ematea, aurreko ataletan aipatu den moduan.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren ordezkari gisa, Iñigo Urkitzak adierazi du, bistan denez, BFArekin batera lan egingo dela Batuz Sistema ezartzeari dagokionez, baina lehenengo urratsa jardunaldietan interesgarria den informazio guztia ematea dela, eta, ondoren, bi urte hauetan, merkataritza-establezimenduei instalazio osoa egiten laguntzea. Horretarako, sektoreei bide horretan laguntzeko bide guztiak aztertuko dira.

TAOren ordainari hobaria emateari dagokionez, esan bezala, teknikoki ezinezkoa da, baina beste irtenbide batzuk landuko dira, saltokien eta beste sektore batzuen arteko lankidetzak ere aintzat hartuta, aparkalekuetan deskontuak eginez pilotatuz.

GetxON marka berritzeari dagokionez, mahai sektorialen hurrengo bileretan hasiko dira lanean.

Taxi sektorearen proposamena, bileran zehar esan den bezala, alde zuzenetik aurretik berrikusi behar da, eta GetxoBizi bizikleta publikoen maileguzerbitzua hobetzeko lanean ari dira.

#### ***4. Kontraste-taldearen eztabaida, proposamenak aztertzeko. Galderak eta iradokizunak.***

Oro har hartuta, jorratu beharreko gaien azalpenetan sortu diren eztabaida txikiez gain, hainbat sektoreren irudipena da, paper-lanak direla-eta, unean-unean sortzen zaizkien arazoak/beharrak udalaren erantzuna baino azkarrago doazela.





**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

Hala ere, sektoreko ordezkari guztiak ados daude Enpresen Aholku Foroa tresna mesedegarri eta aberasgarria dela informazioari eta sektore bakoitzaren eta gainerako sektoreen ezagutzari dagokienez. Udalarekiko *feedback* edo atzeraelikadura handitzea/arintzea lortuko balitz, are onuragarriagoa izango litzateke.

Bestalde, GetxoBonoren kanpainaren balorazio labur eta positiboa ere egin da. Horren harira, sektoreek adierazi dute bonuak azkar agortu direla, nahiz eta abenduaren 31ra arte trukatzeko jarraitu ahal izango duten. Oraindik ere badaude bonuak zirkulatzen (% 20 inguru) noiz trukatu zain.

Era berean, bertaratutakoei gogorarazi zaie mahaietako bilera guztietan, aktak egiten direla eta horiek Getxoko Udalaren webgunean argitaratuta daudela, esteka honetan:

[Getxo - Getxon bizi - Getxolan - Enpresen Aholkularitza Foroa - Enpresen Aholkularitza Foroa](#)

## **5. Hurrengo urratsak.**

Hurrengo lan-saioen kronograma banatu da. Bertan, mahai honetan azaldutako proposamenetako batzuk landuko dira, eta gainerakoen aurrerapenen/egoeraren berri emango da:

**Kirol-aisialdiko Mahaia:** irailak 14, asteartea, 9:30ean

**Taxien Mahaia:** irailak 14, asteartea, 12:00etan

**Ostalaritza Mahaia:** irailak 16, osteguna, 9:30ean

**Merkataritza Mahaia:** irailak 16, osteguna, 14:30ean (irailaren 23ra atzeratuta)

**Ostatu Mahaia:** irailaren 17an, ostirala, 9:30ean

**Interpretazio-Zentroak, Gidak eta Bidaia-Agentzien Mahaia:** irailak 17, ostirala, 12:00etan

**Enpresen Aholku Foroa:** urriak 5, asteartea, 14:30ean

**Kontraste Mahai Politikoa:** Zehazteke.

---



## ERABAKIAK (Kontraste Mahai Politikoa; 2021/09/13):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aztertutako proposamenen balorazioa.	Gobernu-taldea	Bilera-datatik aurrera
2. Bilera-aktaren zirriborroa bidaltzea.	Udal teknikariak	Bilera-datatik aurrera
3. Dagokion arloarekin, TAO/aparkalekuaren hobariaren ordezkotako irtenbideak aztertzea.	Udal teknikariak	Bilera-datatik aurrera
4. Terrazen ordenantzari buruzko 'Ohiko galderen' gidaliburuaren oniritziaren jarraipena egitea, dagokion arloarekin, laster argitaratzeko.	Udal teknikariak	Bilera-datatik aurrera
5. Gaintzako taxi-aparkalekuan jarritako isuna eta leku-murrizketa eremu arlo eskudunekin batera egiaztatzea.	Udal teknikariak	Bilera-datatik aurrera
6. Oku Lounge establezimenduaren terraza dela-eta falta den jakinarazpena berrikustea.	Udal teknikariak	Bilera-datatik aurrera